

Haur Literaturaren garrantzia haurren garapenean (Hitzaldia)

Ba al dakizu zergatik duten irakurketak, ipuinek eta, orokorrean, Haur Literaturak hainbesteko garrantzia gure seme-alaben garapenean?

Bizi dugun teknologiaren, irudiaren eta gain-estimulazioaren aro honetan, inoiz ez bezala, Haur Literaturak berebiziko indarra hartzen du haurraren garapen psikologiko, intelektual eta emozional osasuntsuaren alde, baita hizkuntzaren garapen egoki baten alde ere. Haur Literatura fantasia eta sormena garatzeko ez ezik haurrak bere baita egoteko ahalmena estimulatzen ere, baliabide aberatsa dugu.

Gurasook ba al dakigu zein ipuin diren egokiak gure seme-alaben adin tarte bakoitzerako? Zein ipuinek lagun diezaioketen bere ibilbide psikologiko eta emozionalean?

Saioan zehar kontzeptu hauek guztiak landuko ditugu eta kalitatezko ipuinak ezagutuko ditugu.

HITZALDIAREN GAIAK

- Ñ Nola irakurtzen dute haurrak?
- Ñ Haur literaturaren ahalmen psikologikoa
- Ñ Haur literatura eta garapen intelektualak
- Ñ Haur literatura eta hizkuntzaren garapena
 - Ahozketasunaren eragina
- Ñ Haur literatura eta garapen emozionala

